

40E/2023 EBAZPENA, ekainaren 8koa, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana, zeinaren bidez Nafarroako toki entitateek deitzen dituzten egonkortze prozedurei lotuta euskararen ezagutza maila egiaztatzeko proben deialdia gainditu duten pertsonen zerrenda onartzen baita.

ERREFERENTZIA: **0000-RES1-2023-000396**

KUDEAKETA UNITATEA: Herritarrekiko Harremanetarako Departamentua
Euskara Administrazio Publikoetan Garatzeko Zerbitzua
Euskararen Egiaztapenen eta Prestakuntzaren Atala
Tfnoa.:848 426053 Faxe:
Helbidea: Paulino Caballero, 13, 31002 Iruña
Posta elektronikoa: euskarabidea@navarra.es

Nafarroako toki entitateek deitzen dituzten egonkortze prozedurei lotutako euskararen ezagutza maila egiaztatzeko proben deialditik eratorritako prozesua amaitu ondoren, zeinaren emaitzak dagokion tramite elektronikoaren fitxan argitaratu baitira, navarra.es atarian, prozesua amaitutzat eman behar da prozesua gainditu duten (eta, hortaz, ziurtagiria lortzen duten) pertsonen zerrenda onartuz.

Pertsona interesdunei lortutako euskara maila egiaztatzen duen ziurtagiri bat emango zaie, eta Nafarroako toki entitateek deitzen dituzten abenduaren 28ko 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze-prozeduretan soilik izango dute balioa, bai hizkuntza eskakizuna eskatzen duten deitutako plazak eskuratzeko, bai, hala badagokio, merezimendu gisa baloratzeko.

Horrenbestez, uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legearen zazpigarren xedapen gehigarria aplikatuz, eta Herritarrekiko Harremanetarako Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 30eko Foru Dekretuak eta Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituen azaroaren 6ko 303/2019 Foru Dekretuak emandako ahalmenak erabiliz, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. Nafarroako toki entitateek deitzen dituzten egonkortze prozedurei lotutako euskararen ezagutza maila egiaztatzeko proben deialdiko I. eranskineko gaindituen zerrenda onartzea.
2. Pertsona interesdunei dagokien gainditutako euskara mailaren ziurtagiria ematea.
3. Ebazpen hau nafarroa.eus atariko deialdiaren tramitean argitaratzea.
4. Ebazpen honen kontra gora jotzeko errekurtoa jartzen ahal da Nafarroako Gobernuari zuzendua, hura jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean; hori guztia bat eginik Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 57. artikuluekin eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluekin.

Iruñean, ekainaren 8an

EUSKARABIDEA-EUSKARAREN NAFAR INSTITUTUKO ZUZENDARI
KUDEATZAILEA
MIKEL ARREGI PÉREZ

